

LUIS ETXEBERRIARTEUN, Earen HAMAR URTEAK

ARKO

# Arrasate

P R E S S

1996ko  
Irailak 13  
331. zenb.



Diara taldea  
Hong Kong-eko  
metrorako  
diseinatutako  
bagoi batean.

Diara, AZK Taldea,...

## Diseinua eta komunikazioa

# ARKAZ

## ***Udaberri-udako azken eskaintza berezia!!***



**MODELOAK  
ERDI  
PREZIOAN!!**

- **Logelak**
- **Egongelarako liburutegiak**
- **Sofak**
- **Gazteendako logelak**



# ALTZARIAK

**ARETXABALETA • Araba Etorbidea, 20 • Tfnoa. eta Faxe: 79 23 51**

# Joan-etorria Arantzazura

**K**ale-zokotik gorantz abiatuz gero, nahiz eta nekatu, Natura arnasten dugu eta bizipoza berpizten bihotzean. Zenbat gauza gelditzen zaizkigu gozatzeko porlana, galipota eta giza-eraikuntzen artean! Zuhaitzak, bidezidorrak, errekatxoak, belardiak, txoriak, abereak, eta gauean izarrak.

Kale-girotik atereaz, Naturak inguratzten gaituela, giza harremanak beraiek ere: senidetasuna, adiskidetasuna eta abar, aberasten zaizkigu. Beste gizarte garbiago, zabalago batean sartzen baikara eta "naturalagoak" bihurtu, gizarteko intereskeriak, politikeriak, marmarkeriak eta erasokeriak, maila batean behintzat, gaingiduz.

Aberatsa da benetan Izadi garbiaren bizitasuna: bere edertasuna, mugarik gabeko zeru



urdinak edo lainoen forma harrigarri aldakorrek, beste mundu erreal bat, nahiz eta erdi ahaztua, somatzen eta bizitzen laguntzen digute, kalekoa baina gizakioa-goa den beste mundu bat; eta bizikizun hori "la pera" bihurtzen zaigu baldin eta Jainko-misterioa bera susmatzera eta bizitzera eramaten bagaituzte.

Kanpo alderanzko zabalkuntza mugagabea aberasgarria bada, zer esanik ez barneranzko sakonketa erromesaldia; izan ere, pertsona, bere barne-mundua, beste mugagabeko unibertso miresgarria da, geure buruaren eta Jainkoaren misterio zoragarrira eraman gaitzakena.

Gorantz eta barnerantz abiatuko gara igandean Arantzazuko erromesak. Geure helburua: gizaki-arnasa izadian, senidetasunean eta Jainkoagan jaso eta bizi, gero Mondragoera jeistean Arrasaten ditugun giza-demei eta zereginei arduraz eta kementsu erantzuteko asmoz. Helmuga ez da Arantzazu, Arrasate baizik.

**SAGARRAGA,  
JOSE MARI  
ASTIGARRAGA**

## ZUHAITZ JATETXEA

Urriaren 3a arte  
oporretan gaude!



## Memesa

79-42 22




**ARRASATEKO UDALA**

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

### • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Ollasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ohatt).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Diara Design

# IR TABERNA TI

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

## LILYRA OIHALAK Maritxu Kajoirako

- Zeure soinekoak egiteko oihal eta osagarrietan aukera zabalena
- Soinekoak moztu eta josten dira
- Egindako soinekoak saltzen dira
- Oso prezio onak

Zerkaosteta kalea, 5 behea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 89 72

## • Txitxinpe • Berezitasunak: Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

## ..... Soinua, CB LeireZubeldia Baliarraindarrari erantzunez

**A**zken egunotan Baliarrainen abuztuaren 16an musika jaialdi bat zela eta Soinua eta Sonotec enpresen aurka salaketa gogorrek egiten dituen gutuna azaldu da hainbat komunikabidetan. Gutun eta kritika horien inguruan Soinua enpresak honako hau adierazi nahi du:

1. Baliarraindarrei gertatutakoan Soinuak ez duela inolako errurik eta Soinuak jaialdi eguna pasatu arte antolatzaile batekin ere ez zuela inolako kontakturik izan.

2. Sonotec enpresak Baliarraingo kontzertuaren inguruan abuztuan aipamen hutsa egin ziola Soinua etxeari, inolako konfirmaziorik ez ziola egin jaialdi egunaren arratsaldeko hirurak arte. Une hartan Sonotec-ekoei lan horrek inolako konfirmaziorik izan ez zuenez lan hori egiteko genituen zailtasuna adierazi genien. Dena den Soinua enpresarentzat arazoa hamar minututan konpondu zen, izan ere Sonotec-etik berehala

deitu ziguten beste enpresa batekin Baliarraingo jaialdiarena konpondua zutela esanez.

3. Leire Zubeldiak eta gainerako Baliarraindarrek haserre egoteko arrazoiak izango dituzte baina, mesez, inolako errurik ez duena ez deskalifikatu, are gutxiago publikoki.

4. Soinua enpresako langileok herrien tamaina eta antolatzeileen ospea konpantuan izan gabe; hau da, gure bezero guztiei ahal dugun zerbitzu onena ematen jarraituko dugu, orain arte saiatu eta egin dugun bezala.

**SOINUA, CB (ARRASATE)**

## Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehinez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Horik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzenez edo inzialez datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenean kaleratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egiaztatzeko, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da.

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

## ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

## IBARRA Garajea S.L.



EBRO  
NISSAN

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua




## Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak  
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak  
Lehioak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak  
Eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almagena:  
Kale Txiki, 3 - behea  
Tfnoa: 77 11 20  
Faxa: 77 11 20  
ARRASATE



PEUGEOT


Salmenta eta  
zerbitzua

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

# Zer iruditzen zaizu Hondarribiko alardean gertatutakoa?



**Eli Garro**  
**Ikaslea**  
**(15 urte)**

Uste dut emakumeek alardean irteteko eskubidea dutela. Berdintasuna dagoela esaten dute baina ikusten denez ez da horrela.




**Jesus Bolinaga**  
**Jubilatua**  
**(75 urte)**

Emakumeek ere alardean ateratzeko eskubidea dute. Ez dago emakumeak alardean ez parte hartzeko arrazoirik.



**Miren Etxebarria**  
**Langilea**  
**(43 urte)**

Ez zait gaizki iruditzen emakumeak alardean irtetea. Gizonezkoek bezala horretarako eskubidea dute.



**Iñaki Madinabeitia**  
**Langilea**  
**(38 urte)**

Gaur egun horrelako gauzak pasatzea lotsagarria da. Ni bergararra naiz eta han ere emakumeak ateratzen dira tanborradan.



**Jaione Bengoa**  
**Langilea**  
**(30 urte)**

Txarto iruditzen zait emakumei alardean irteteko aukera ez ematea. Ohiturak aldatu egin behar dira.



**Jon Stegmeier**  
**Ikaslea**  
**(20 urte)**

Atentzioa deitzen dit gaur egun horrelako gauzak pasatzeak. Joan den mendean gertatzea bai, baina orain! Tradizioak errespetatu behar dira baina ez puntu horretaraino.



**Felisa Oroiz**  
**Etxekoandrea**  
**(58 urte)**

Niri gustatuko litzaidake emakumeak ere irtetea, horretarako eskubidea dutela uste dut eta. Zergatik ezin dute emakumeek irten?



**Joseba Solana**  
**Ikaslea**  
**(21 urte)**

Alde bakoitzak bere arrazoiak izango ditu, baina niri ondo iruditzen zait emakumeak ere irtetea. Ohiturak ere aldatuz doaz.

**OPEL** 



**Zure OPEL banatzailea ARRASATEN, zergatik joan urrunago?**

**Uztailean zapatuetan itxita!**

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Igaluatorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espezialitateak .....77 05 78  
 77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 13**  
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.
- Larunbata 14**  
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.
- Igandea 15**  
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.
- Astelehena 16**  
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.
- Asteartea 17**  
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.
- Asteazkena 18**  
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.
- Osteguna 19**  
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

**13 OSTIRALA**

- **ZINEA**  
 "Días extraños" 7etan eta 10etan.
- **URIBARRI ERGUINGO JAIAK**  
 Arratsaldeko 7etan meza auzoko hildakoen alde. 7.15etan erraldoi eta buruhandiak. Usaetxe plazan berriz, mahai jolasak eta karaokea. 7.30etan herri txikiteoa eta luntxa auzoko jubila-tuentzat. 11etan rock kontzertua Madrilgo "Redshiet", "Like Peter at Home" eta "Manufacturas" taldeen eskutik Udalpe plazan.

**MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULA ZABALIK**

*Jesusi Etxebarria musika eskolako matrikula zabalik irailaren 4tik irailaren 30era. Izena emateko zabalik 5etatik 9etara Iturriotz kalea 32 behean, tef: 79 17 67. Klaseak umeentzat bost urtetik hasita eta helduentzat.*

**SEGURTASUNA ETA AUTOBABESA MENDIAN IKASTAROA.**

**Mendian gertatzen diren istripuei aurre egiteko Euskal Mendizale Federakundeak eta Eusko Jaurlaritzako larrialdiei aurre egiteko zuzendaritzak elkarlanean segurtasuna eta autobabesa mendian ikastaroa antolatu dute. Bertan izena emateko epea irailak 17, 18 eta 19an Besaideren egoitzan. Ikastaroa irailaren 25, 26 eta 28an emango da.**

**14 LARUNBATA**

- **ZINEA**  
 "Donde reside el amor" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **URIBARRI ERGUINGO JAIAK**  
 Goizeko 10etan erraldoi eta buruhandiek kalejira. 10.30etan atletismo frogak Iturripeko pistan. 11etan pilota partiduak Iturripen. Arratsaldeko 4etan mus txapelketa. 5etan Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoekin jaialdia Usaetxe plazan. 6.30etan umeentzat jaialdia. Gaueko 11etan dantzaldia Udalpe plazan.
- **BERTSO JAIALDIA BERGARAN**  
 Bertsolariak: Angel M. Peñagarikano, Andoni Egaña, Ainhoa Agirreazaldegia, Jesus M. Irazu eta Iñaki Murua. Gai jartzailea: Joxerra Gartzia. Bergarako Mariaren Lagundiko aretoan gaueko 10.30etan. Sarrera: 800 pta eta aurrez erosiz gero 700 pta.

**15 IGANDEA**

- **ZINEA**  
 "Donde reside el amor" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **BESAIDE EGUNA**  
 Besaide egunerako hainbat ekintza antolatu da. Besteak beste txalaparta emanaldia, meza eta dantzariak izango dira bertan. Eguerdian bakoitzak eramandako janariarekin bazkaria. Aurtentzen aramaioarrei egokitu zaie egun horretarako ekintzak prestatzea.
- **ARANTZAZURA ERROMES**  
 Oinez joan nahi dutenentzat irteera goizeko 6.30etan Kontzeziñoko arkupeetatik. 9.30etan autobusez doazentzat irteera Garibaitik eta Zigarrolako gasolindegitik. Irteera ofiziala Gesaltzatik goizeko 10etan. 12etan meza Arantzazun. Autobusentzat itzulera eguerdikoko 2etan eta arratsaldeko 5etan.
- **URIBARRI ERGUINGO JAIAK**  
 Goizeko 10etan diana. 12.30etan herri kirolak Arimazuri plazan. Ordu batean Al Andalus elkartean dantza emanaldia. Arratsaldeko 5etan Farias brasildarraren akrobazia ikuskizuna. 7etatik 9.30etara Txinparta taldeak alaituta berbena Arimazuri plazan.



**PIRAGUISMO IKASTAROA**

Eskimotajearen teknika lantzeko ikastaroa Musakolako kiroldegian. 14 urtetik gorakoentzat antolatuta. Irailaren 21 eta 22an emango dira klaseak. Zapatuan goizeko 10etatik ordubata arte eta arratsaldeko 4etatik 6etara. Domekan goizeko 10etatik 2etara. Prezioa: 3.000 pta Deba Garaiko Kirol Zerbitzuetako bazkideentzat eta 4.000 pta gainontzekoentzat.

**16 ASTELEHENA**

• **ZINEA**  
 "Donde reside el amor" 7etan eta 9.30etan.

• **ODOL EMATEA**  
 Arratsaldeko 4.30etatik 8etara Arrasateko Anbulategian.

• **DIAPOSITIBA EMANALDIA AITA MENNIN**  
 Gaia: urtaroak mendian. Egilea: Imanol Lasa. Arratsaldeko 5etan Aita Mennin.

**17 ASTEARTEA**

• **ZINEA**  
 "Donde reside el amor" 7etan eta 9.30etan.

• **ODOL EMATEA**  
 Arratsaldeko 4etatik 8etara Arrasateko Anbulategian.

**19 OSTEGUNA**

• **ZINEA**  
 "Twister" 7etan eta 9.30etan.



**EUSKO ALKARTASUNAREN X. URTEURRENA**

**Irailak 22an igandea, Eusko Alkartasunaren X. urteurrena ospatuko da Lizarran. Arrasateetik autobusak aterako dira Garibaitik goizeko 10etan. Joan nahi dutenek dei dezatela Alkartetxera (79 64 53) arratsaldeko 7etatik 9etara.**

**LIBURUTEGIKO ORDUTEGI BERRIA**

Liburutegiko ordutegi berria astelehenetik larunbatera goizeko 11etatik ordu batera. Arratsaldeko 4.30etatik 8.30etara. Bestalde bazkide txartel berria eginda daukaten bazkideei Monterrondik pasa daitezela jakin arazten zaie. Oraindik txartela berritu barik daukatenak ere lehenbailehen pasa daitezela, urritik aurrera mailegu zerbitzua txartel berriei bakarrik erabili ahal izango da eta.

**MARRAZKI ETA PINTURA IKASTAROAK**

*Irailaren 25ean marrazki eta pintura ikastaroak hasiko dira Monterronen. Irakaslea Amaia Bengoa izango da Arte Ederretan lizentziatua. Izena emateko epea irailak 16, 17 eta 18an arratsaldeko 5etatik 7etara. Prezioa: 15.000 pezeta. Klaseak ostegunetan arratsaldeko 5etatik 8etara eta larunbatean 10etatik ordu batera emango dira.*

**ITZULPEN LEHIAKETA**

**EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak "Literatura Unibertsala" bildumako itzulpen-lehiaketa zabalduko du. Itzulgaien zerrenda eta xehetasunak irailaren 24tik aurrera emango dira elkartera deituta. Tlf: 27 71 11 (goizez).**



**TXATXILIPURDIK ANTOLATUTAKO LARUNBATEKO EKINTZAK**

*Tiki-Taka:* Haur hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailakoentzat. Irailetik maiatzera arteko larunbat guztietan. *Txatxilikeixetan:* Lehen hezkuntzako lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailakoentzat. *Txatxili-artistak:* Bigarren hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat espeologia eta orientazioa mendian, brikolaia eta ordenagailu ikastaroak antolatu dituzte. DBHko lehen eta bigarren mailakoentzat telebistagintza, sexualitatea eta argazkilaritza ikastaroak. Arratsaldeko emango dira klaseak 3etatik 6etara. Informazio gehiagorako deitu 79 54 46 zenbakira.

**ARGI PLASTIC**

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...  
 • Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea**

HAURDUNALDIA  
 AMNIOZENTESIA  
 ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
 BASEKTOMIA  
 BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**  
 Ramón M. Lili, 2 BERGARA  
 Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

## Hiperra dela eta herriko merkatariak kezkatuta daude. Zer esango zenieke?

“Gipuzkoako herriak, biolentzia laborategi? Galdera zera litzateke: zergatik desagertzen dira istiluak udalerrri batzuetan, beste batzuetan bizirik dirau edo berpizten diren bitartea? Hernani, Orereta eta Arrasate, arazo horretan esperientziaia duten Gipuzkoako hiru udalerrri dira.

(...) Arrasatek erreferentzia izaten jarraitzen du, ETako zuzendari historiko batzuen sorleku, Txomin Iturbe bezala, eta kooperatiben mugimenduaren sorleku izateagatik.

(...) Arrasatek izaera berezia du. 25.000 biztanleko udalerrri honetan, industriak mugitzen du ekonomia, eta langabeziak ez du hainbesteko eraginik 50-60 hamarkadan sortu zen kooperatibismoari esker.

Hainbeste ondorio izan dituen sistema honen hazia J.M. Arizmendiari aitak landatu zuen, langileak enpresario bihurtu zituen apaiz ezkertiarak. Mondragoeko kontzientzia soziala argi geratu zen, eskola politeknikoaren inguruan sortu ziren enpresa sozio-ekonomikoek erakutsi zuten moduan.

(...) Arrasateko hauteskundeetako emaitzei dagokienez, botoek alkatetza HBko hautagaiari eman ohi diote.


Azken hauteskundeetan, Hernanin bezala, EA, PNV eta PSEk osatutako hirukoak egoera hori apurtzeko erabakia hartu zuen, baina espero ez ziren bi boto zuri anonimok berriro esarrazi zuten Xabier Zubizarreta, HBkoa, ondoen ezagutzen duen ezarlekuan, alkateari dagokionean”.

L ehendabizi argi utzi nahi nuke ez naizela merkatarietan aditua, baina labor bada ere azalpen batzuk emango nituzke joan den astean Arrasate Pressen merkataritza batzuk esan zutenaren inguruan. Nire ustez, horrelako gai bati buruz hitzegitean objektibotasun gehiagorekin egin behar dira planteamendurak.

Udalak ez du erabaki Arrasatek Hiperra jartzea, daraman zabalakundeari jarraituz Eroskik erabaki du herrira etortzea.

Hiperra herrian jartzeak eragin positiboa izan dezakeela esango nuke, era horretan Arrasate Deba Garaiko gune komertziala bihurtuko da eta. Pentsatu beharko litzateke zer gertatuko litzakeen Deba Garaian horrelako zentro bat barik. Hiperrak jakina, eragina izango du dendariengan, baina horren aurrean egoerari aurre egiteko aldaketak egin behar dituzte merkatariak. Industria eta beste sektore batzuk momentuko egoerara moldatu behar izan duten moduan, dendariak ere gauza bera egin behar dute.

Bestalde, alde zaharra gutxi zainduta dagoela esaten zen eta horrekin ez nago ados. Azken hamar urteetan inbertsio handiak eta berrikuntza asko egin da erdialdean. Horrez gain, aparkalekuen kontua aipatzean kontraesana ikusten dut; alde batetik aparkaleku gutxi dagoela baina bestetik erdialdea oinezkoendako izan behar dela aldarrikatzen dute eta. Aparkalekuak eta parking publiko bat baditugu, oso merkea gainera, eta nire ustez oinezkoen alde terrenoa irabaziz joan behar dugu.



**Xabier Zubizarreta**  
Alkatea

1996-9-9

**EL MUNDO**  
del PAIS VASCO

**OSORIK  
PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**GOROSTI**  
Jatetxea  
Arimazuri Plaza • Tfnoa: 77 06 07 • ARRASATE

**Monte  
taberna**  
Maalako arrabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

**EZARKI**  
OINETAKO KONPONKETAK  
Portaloitik 100 metroa!!  
Maalako Errebala, 8 • ARRASATE

- Oinetako mota guztien konponketa (kalekoak, kirolekoak, mendikoak...)
- Kremaierak
- Rematxeak, ojalak, automatikoak
- Kremak, tinteak, kordioak
- Nekearen kontrako plantila bereziak
  - Zientifikoki aztertuak
  - Forma anatomikodunak
  - Arazo guztiendako plantilak



**Lapurretak**

Ostiral gauean Ferrerrias kaleko farmazia batean lapurretan egiten ahalegin-  
du ziren, baina ez zuten  
barrura sartzea lortu.

Kontzeziñoko goxoki  
denda batera, berriz, sartzea  
lortu zuten lapurrek, eta  
goxokitan 60.000 pezeta  
eraman zituzten.

Astearte gauean,  
bestalde, Maalako harategi  
batean 7.000 pta. inguru  
lapurtu zituzten.

**Edukiontzia sutan**

Zapatu gauean bi  
edukiontzi erre zituzten  
Arrasaten. Lehenengo  
Zaldibar frontoiaren  
ondoan dagoen edukiontzia  
erre zuten, eta ondoren  
beste bat Otaloran. Suhil-  
tzaileek etorri behar izan  
zuten sua itzaltzera.

**Istripuak alkoholaren  
eraginpean**

Igande goizaldean  
istripua izan zen Kanpanza-  
rren, eta alkoholemia froga  
egindakoan istripua zuen  
gidariak, M.F.I. inzialdu-  
nak, 1,04ko tasa eman  
zuen.

Igandean ere, goizeko  
zortzietan, auto batek  
Elkano kalean aparkatuta  
zeuden hiru autoren aurka  
jo zuen. Ertzantzak alko-  
hemia froga egin zion  
gidariari, 23 urteko I.A.S.  
gazteari, eta frogan 0,69ko  
tasa eman zuen.

**Sei autoren arteko  
istripua**

Joan de asteazkenean,  
goizeko 8etan, sei autoren  
arteko istripua gertatu zen  
Maxi Eroski parean.  
Istripua ez zen larria izan,  
nahiz eta auto asko izan  
kaltetuak.



**Corazón de Encinakoak Landako  
urtegiaren egunpasa**

Joan den astebukaeran Extremadura eguna ospatu  
zuten Corazón De Encinako bazkideek. Zapatuan Lan-  
dara joan ziren jai giroan eguna pasatzeko. Arrasaten  
bizi diren extremeñoek gain, inguruko herrietakoak ere  
hurbildu ziren Landara, eta guztira 300 lagun bildu ziren.  
Igandean, berriz, Arrasaten duten egoitzara hurbildu ziren  
Corazón De Encinakoak, eta han Extremaduraren alde  
topa egin zuten. Irailaren 8an Extremadura eguna dela  
eta egiten dute jaiak.

**JAIOTZAK**

- Jon Ugarte Presas. Irailaren 3an.
- Eneko Perez Oria. 7an.

**EZKONTZAK**

- Roberto Goikoetxea Garitano eta Itziar Zubiaga Barrena. Abuztuaren 17an. Zibilez.
- Juan Antonio Sanchez Donoso eta Maria Teresa Garcia Rodriguez. 20an. Elizatik.
- Juan Luis Pagaldai Urrutia eta Amaia Arzamendi Unamuno. 20an. Elizatik.
- Luis Heriz Vitoria eta Juana Rodriguez Sanchez. 25ean. Elizatik.
- Andoni Garitano Uriarte eta Gloria Jose Casado. 25ean. Elizatik.
- Juan Ignacio Errasti Jauregi eta Maria Cristina Agirrebeitia Crespo. 29an. Zibilez.
- Jose Giner Ponze Vicente eta Monica Cerezo Torices. 27an. Elizatik.
- Koldo Mikel Uribesalgo Mujika eta Ainhoa Irureta Ania. 25ean. Zibilez.
- Jesus Alonso Ezkurra eta Ana Gil Guerrero. 27an. Elizatik.
- Jesus Maria Gallastegi De Blas eta Maria Teresa Altuna Elorza. Irailaren 7an. Zibilez.
- Jose Luis Jimenez Sanchez eta Begoña Pacheco Saez. 7an. Zibilez.

**HILDAKOAK**

- Saturnino Sarrao Alberdi. Abuztuaren 28an. 68 urte.
- Carolina Zorita Zarzosa. Irailaren 1ean. 82 urte.
- Jose Karkostegi Maiztegi. 3an. 86 urte.


**Gili-Gili**  
**JANTZIDENDA**  
berriro Arrasaten!

**ASTE HONETATIK AURRERA!**

Iturriotz Kalea, 9 • ARRASATE • Tfnoa: 79 81 82



**Etorri**  
**berrikuntzak**  
**ikustera!**



Koldo Azkoitia \*

## Turismoa Deba Garaian

**D**eba Garaiko eskualdeak izan du historian zehar tradizio turistikoa, aipatzekoak, besteak beste, XIX. eta gure mendearen lehenengo laurdenean, ospe handia izandako bainetxeak. Egia da bestalde, industrializazio prozesuarekin beste estruktura ekonomikoa eraiki dela gure esparruan eta giro horretan turismoaz hitzegitea arraro samara zela Deba Garaian.

Mankomunitateak, Garapen Ekonomikoaren agentziaren eskutik eta Oñatiko Udalaren inizatiba abiapuntutzat hartuta, 1.993. urtean Turismo Garapenerako Plangintza Integrala diseinatu zuen. Plangintza honek bi ardatz edo zutabe nagusi ditu; batek turismoa aberastasuna eta enplegua sortzeko sektore ekonomiko egokia dela, batez ere gure eskualdean, gaur egun garatua ez dagoen sektorea delako eta beraz zuzenean

erantzun dezakeelako dibersifikazioaren beharrari. Bestetik, sektore honen inguruan egingo diren ekintza guztiak gure ingurugiroa eta bizitza kalitatearen aldeko ekintzak izango direlako azken finean.

Mankomunitateak aipatutako Planaren hildoak jarraituz hainbat ekintza burutu ditu udalekin batera azkenengo hiru urte hauetan; besteak beste, formakuntza eman da eskualde mailako agente turistikoa hezituz eta batera turismo gestioko enpresa bat sortuz. Turismo mailako eskualde identitatea eta oinarritzko

.....  
**“Ekintzarik aipagarrienak Informazio Puntu Informatizatuaren instalazioa eta Pakete Turistikoaren egitura eta komertzializazioa izan dira”**

katalogoa ere publikatu eta zabaldu dira. Harrerako azpiegiturak ere lagundu dira eta ikerketa eta proposamen konkretuak ere egin dira.

Azken urteko ekintzarik aipagarrienak “Informazio Puntu Informatizatuaren” instalazioa eta “Pakete Turistikoaren” egitura eta komertzializazioa izan dira. Informazio puntua, multimediatuako produktu aurrerakoia dugu, aipatzeko produktu hau garatzeko Irakasle Eskolak egindako lana, produktu hauetan jakitunen esanetan, estatuan aurkitu daitekeen onenatariko bat dugu gure puntua. Oraindik frogatan dago eta esperimentalki Bergaran eta Arantzazun kokatu da. Laburrean Arrasaten, Portaloiko Kutxako fatxadetan, ikusteko aukera izango dugu. Bestalde gabonetarako informazio puntu hauetan jasotzen den informazioa CDROM batean jasotzeko eta zabaltzeko asmoa du Mankomunitateak.

Pakete Turistikoak, Turlan enpresak egin ditu eta bi pake mota garatu dira, lehenengo luzea edo aste osokoa eta bigarrena aste bukaerakoa hiru bariante edo alternatiba jasotzen duena. Honen bidez beste ate bat zabaltzen da turistak gure eskualdera erakartzeko.

Aurrera begira Mankomunitateko helburuen artean Inizatiba Turistikoak bideratzeko Zentroa edo Elkartea bultzatzea azpimarra daiteke. Honen bidez sektorean mugitzen diren agenteak inplikatu eta laguntzea bilatzen da, ea ze harrera aurkitzen dugun.

**\* GARAPEN EKONOMIKORAKO ESKUALDE AGENTZIAKO ARDURADUNA**

## USTEAK USTE

### ONDAREA AITZURKADAKA

**Leze Txiki izorratuta egi dago. Hori aipatzen zuten, behintzat, Aranzadikoek joan den asteko Arrasate Presseko artikulua batean. Haserre bizian agertzen ziren bertan, errudunak aurkituz gainera: lehenak kobazulora joan, eta zertan zebiltzan jakin barik (edo ondo jakinda akaso) aitzurra eskuarte hartu eta zulatze lanean gogor jardun zutenak. Ados puntu horretan, gure arbasoen arrastoetan aitzurkadaka ibiltzeari, geure orainari eta geure etorkizunari aitzurkadak ematea bezalako deritzot eta. Bigarren erruduntzat koba babestu ez dutenak zirela aipatzen zen, honelako aztarnategi bat behar bezala zaintzeko beharrezko diren neurriak hartu ez zituztenak, eta ondoren esaten zuen Udaletxera jo behar zutela arazoa zein zen azaldu eta zer egin zitekeen ikusteko. Ez dirudi burugabekeria hori egiteak, baina horrela esanda, ematen du Leze Txiki behar bezala zaintzearen ardura osoa Udalarena izan behar duela. Eta hor ezin naiteke erabat ados egon. Ez du ba Jaurlaritzak kultur departamentu bat? ez du ba ondare historikoa zaintzeko erakunde bat? ez du ba Aranzadi berak dirulaguntza jasotzen horrelako gaiak aztertu eta behar diren neurriak hartzeko gomendioak egiteko gaitasuna?... Edozein modutan ere, zain dezagun Leze Txiki, iraganeko altxorrek egungo eta biharko aberastasuna dira eta.**

**BEÑARDO KORTABARRIA**

**beatriz**

oinetakoak eta poltsak


Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**ESLU**  
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE  
Tfnoa: 79 52 50



Erasoetatik babesteko sendotuko dira leihoak.

## Leihoak sendotzea falta INEMen bulegoa bukatzeko

Irailaren bukaerarako gertu izango da geltoki zaharreko eraikina, eta lehenbailehen INEM erakundeak berriro ere Arrasaten jarriko ditu Deba Garairako bulegoak.

Abuztuan gasa sartu eta energia elektriko gehitu ondoren, orain leihoak indartzea falta da bakarrik. Erasoetatik babesteko jarriko zaie leihoei kristal sendoagoa, eta astean lan hori adjudikatzea erabaki du Udalak. Inguruan itxiera perimetrala egitearen asmoa, berriz, INEMek eskatu du ez egitea. Eraikinaren aurrealdean errepidea egonda ezinezkoa ikusi da eraikina babesteko itxiera egitea.

Itzulera gertatu aurretik, hala ere, INEMek eta Udalak hitzarmena sinatuko dute enplegu erakundea zein baldintzetan datoren zehazteko. Baldintza horiek uztailan egin zen plenoan onartu ziren. Horren arabera, INEMen aurkako erasorik egiten bada Udalak segituan erasoaren ondorioz sortutako kalteak konpondu beharko ditu, eta kostea ere Udaletxeak ordaindu beharko du. Udalak, bestalde, hamar urterako alokatuko dio eraikina enplegu erakundeari. Baldintzak onartzeko plenoa egin zenean, HB eta EBko zinegotziek gehiegizkotzat jo zuten hamar urteko epea.

## Goio Etxaberi epaiketa

Datorren astelehenean, irailaren 16an, Goio Etxabe arrasatearra epaituko dute Madrilgo Audientzia Nazionalean. Etxabe 95eko apirillean atxilotu zuen Ertzantzak Arrasaten, ustez ETako komando legal bateko kide izateagatik. Fiskalak, 31 urteko kartzela zigorra eskatzen dio.

Goiri elkartasuna adierazteko, Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak Madrila joateko autobusak antolatu ditu.

## Osakidetzari informazioa eskatu

Arrasaten eraikitzen ari diren ospital berriaren inguruko informazioa bidaltzea eskatu dio Udalak Osakidetzari. Eraikin berriaren inguruak nola geratuko diren azaltzen duen dokumentazioa bidali ez dutela eta egin du eskaria Udalak. Bide batez, proiektu orokorra bidaltzea ere eskatu dio.

Hilabeteko epea eman dio Udalak, eta epe horretan ezer aurkezten ez bada espedientea irekiko dio.

**AISIALDIKO BEGIRALE edo ZUZENDARI  
TITULUA** eskuratu nahi baduzu...

**HAUXE DUZU AUKERARIK  
ERREXENA ETA POLITENA!!!**

**ZATOAZ TXATXILIPURDI ELKARTERA ETA INFORMA ZAITEZ  
IRAILAREN 18a BAINO LEHEN . TFNOA: 79 54 46**



# 175 milioi kostako litzateke Musakolako kiroldegia konpontzea

Udalaren aginduz Labein enpresak egin duen azterketan jasotzen denez, 175 milioi-ko kostea izango du Musakolako kiroldegia konpontzeak. Horretan azaldu diren pitzaduren ondorioz eraikinarren estruktura kaltetuta dagoela eta aterako da hain garesti konponketa.

Kiroldegiaren egoera kaxkarrarena ez da kontu berria. Pitzadurak agertu zirela eta, Udalak azterketa egitea adjudikatu zion Labeini. Udaberrian ikerketa egiteari ekin zion enpresa horrek, eta orain horren berri izan da. Azterketan aipatzen denez, zortzi hilabeteko iraupena izango luke kiroldegiko estruktura konpontzeak.



Datorren urtean hogei urte beteko ditu Musakolako Kiroldegiak.

Ikerketa egin aurretik, Udalak ez zuen uste hainbesteko kalteak egongo zirenik kiroldegian, eta horregatik, oraindik ez du erabaki zer

egin. Aukera bat konponketak faseka egitea izan daiteke, baina era horretan Diputazioetik dirulaguntza txikiagoa jasoko litzatekeela uste

du Udalak. Guztia batera konponduta, berriz, dirulaguntza kopurua handiagoa izango dela uste da. Hirugarren aukera bat ere bada: kiroldegi berria eraikitzea. Azken aukera horrek epe motzera koste handia izango duela ikusten bada ere, luzera hobe izan daitekeela pentsa daiteke. Hirigintza sailekoek adierazi dutenez, arriskurik ez dago eta egoera ez da kiroldegia isteko modukoa baina lehenbailehen erabakiren bat hartu behar da.

Datorren urtean hogei urte beteko dituen Kiroldegia Gipuzkoako zaharrenetarikoa da. Azken hobekuntzak igarilekuan egin ziren 1990ean Osakidetzak eskatuta.

## Harpidedun: berritu edo oparitu harpidetza!



Arrasatek kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatek kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrantean **3.000 ptako** diru sarrerara egin dezakezu **urriak 15a baino lehen** kontu korrante zenbaki hauetako batean:


- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

**77 08 15**

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE



AKEI itxi ondoren Sasietara eramango da Deba Garaian biltzen den zaborra.

## Zaborrak AKEItik Sasietako mankomunitatera

Diputazioak jakinarazi du ez duela zaborrak errausteko labea egingo. Labe hori eraikitzea oso garesti aterako delako utzi da albo batera zegoen egitasmoa. Aldundian aipatu denez, Gipuzkoa osoko zaborrak erretzeko labea egiteak 25.000 milioiko inbertsio publikoa beharko luke.

Asteartean Diputazioko arduradunek emandako prentsaurrekoan planteatu zenez, egungo zabortegiak egokitzea eta hondakinak han biltzea izango da irtenbidea. Era horretan, Sasietako Mankomunitateak duen zabortegira eramango dira Deba Garaiko zaborrak ere. Zabortegi horretara Goierri eta

Tolosaldekoak ere eramango dira. Sasietako zabortegia 2015. urtera arte egongo litzateke zabalik.

Erabaki horren aurrean, eskualdeko zaborrak Sasietara nola eraman pentsatu beharko du orain Deba Garaiko Mankomunitateak. Seguruenik Mankomunitateak dituen garraioak erabiliz garraiatuko dira zaborrak. Mankomunitateko arduradunak astean Diputazioan izan dira gai hori zelaz lotu erabakitzeko.

Urtea amaitu orduko AKEI itxi egingo dela eta bidaliko dira zaborrak beste toki batera.

## Alegazioetarako aukera

Urriaren 9ra arte aukera izango da Udal Egitamu Orokorrean egin diren aldaketei alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Zerrajera inguruan egin den aldaketa jasotzen duen laburpena ere jendeaurrean da nahi duenak ikus dezan. Aldaketa horren arabera, orain etxebizitzak ere egingo dira orube horretan.


## Auto frantsesa erre

Asteazkenean, gaueko orduetarako hamar gutxitan, matrikula frantsesa zuen autoa erre zuten Arrasaten. Peugeot 205 markako autoa Arrasate Pasealekuan aparkatuta zegoen, eta erabat kiskaldia geratu zen barrura bota zioten molotov koktelaren ondorioz. Auto horren ondoren zegoen beste auto batek ere kalteak jasan zituen. Inguruan bizi izaten zegoen frantses batena zen autoa.

Egun berean ere, gaueko 1.30ak inguruan, Araba Etorbideko edukiontzi bat erre zuten. Oñatiko suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera.

# LENIZ ALUMINIOAK


Bi orriko atea



~~109.000 pta.~~  
101.000 pta.

Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!


Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.



**P.V.C.an  
udako  
beharpen  
bereziak!**

Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu


Bi orriko leihoa



~~84.000 pta.~~  
76.000 pta.


Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.



Bedoñakoa da Arrasaten geratzen den **perratoki bakarra** eta egoera txarrean dagoenez, Udalak konpontzea erabaki du. Garai batean baino gutxiago erabiltzen da perratokia, baina bedoñarrek

konpontzea eskatu zuten. Behiren batek oinean ebakiren bat egiten duenean inguruan geratzen den perratzaile bakarrari, **Bixente Barandiarani**, deitu eta horrek perra jartzen dio behiari.



**Sharryn Kasimirrek hainbat urte Arrasaten bizi izandako Estatu Batuetako lagunak "The Myth of Mondragon" liburuak kaleratu du. Liburuak Arrasateko kooperatibismoa, politika eta langilegoari buruzkoa da eta New York-eko State University-n bere tesia aurkezteko balio izan dio.**



**Fernando Ruiz** eta **Itxaro Vitoria** Arrasateko Udaletxean ezkondu ziren uztailearen 6an. Zorionak bikote!



**Alberto Calvo** eta **Gurutze Mendia** atxalbarrak Azatzan ezkondu ziren ekainean. Bazkaria Soraluze hostalean izan zuten eta ezkonbidaian Costa Rican izan dira. Zorionak!

**Kilometroak 96**  
**Lehiaketa**

Kilometroen eguna iritsi artean, astero zozketatuko ditugu 2.000 pta.ko hiru agiri zirkuitoan bertan erabili ahal izateko. Aste honetako irabazleak dira:

- **Miren Gotzone Buruaga**
- **Nerea Mondragon**
- **Stella Oyanguren**

Zorionak hirurei eta gainontzekoei animo eta ea aste honetan aurkitzen duzuen Kilometroetako anagramatxo ezkutua!

EPELDE

EPELDE

*Epelde*

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24  
Tfnoa: 79 19 71
Maixu Arano, 8  
Tfnoa: 79 26 23


— **Jesusi Etxebarria** —  
— **MUSIKA ESKOLA** —

1996-97 ikasturteko matrikula epea zabalik irailaren 4tik 30ra arte.

Solfeo, abesbatza, armonia, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta kitarra (Azken hau modalitate guztietan, klasikoa, rock-a, blus-a, modernoa, etabar, solfeoz edo zifraz).

Iturriotz kalea, 32, etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 17 67

**Ander Barberok eta bere aita Jose Manuelek Ontto Zuri motako hainbat perretxiku jaso zuten Kruzetan ostira-lean. Jakin izan dugunez perretxiku zale amorratuak dira eta sasoiaren askotan joaten ei dira. Ostira-lean jasotakoekin Anderrek esan zigun bezala afari bat egin behar zuten. Afari goxoa horrelako perretxiku ederrak bildu ondoren.**



#### **Arantzazu Lagunilla**

23 urteko arrasatearra 97ko **Gida Komertziala** lantzen ari da. Gida eguneratzeko dendaz denda ibiliko da Arantzazu, beraz, aurpegi ezaguna egingo zaizue hemendik aurrera. Arantzazuk enpresa zientziak ikasi ditu ETEOn eta Bilbon. Gida berria urtarrilean kaleratuko da ARRASATE PRESSEKO urteko lehen alearekin batera.

#### **IZEN PROPIOAK**

● **Jesus Mari Plazola** arrasatearra, Jauregi baserriko semea 6. aldiz izan da Gipuzkoako ardi txakur lehiaketako irabazlea. Iaz ere irabazi zuen txapelketa bera "Mendi" txakurrarekin; aurten, berriz, "**Nere**" txakurrarekin irabazi du.

● **Jose Mari Velez de Mendizabal** arrasatearrak Gerardo Lopez de Gereñu idazleari buruzko liburua kaleratu du. Lopez de Gereñu idazleak Manuel Lekuona saria jaso zuen 1990an.

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**M**  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA**  
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 15 65

Erdiko kale. 79 19 37

**T**  
**L**  
**E**  
**A**

Ferrerias. 79 87 62

Euskaldunak  
izan nahi  
dugulako

**EUSKAL HERRIA  
EUSKALTEGI  
BIHURTU DUGU!**



## **EUSKARA IKASTAROAK**

Maila guztiak, EGA eta  
ALFABETATZE.

Gurasoentzat klase bereziak.

Matrikula epea:  
IRAILAK 27ra arte.

Informazioa eta matrikula:  
ERDU-AEK EUSKALTEGIA  
Garibai kalea, 14-3.  
Tfnoa: 77 03 69



Udalaren laguntzaz.  
**BEKA SISTEMA.**



# Diseinua eta komunikazioa gure artean

Maria Agirre

**Enpresak produktu on bat egiteko gai izatea garrantzitsua den arren, produktuaren diseinua zaintzea beharrezkoa da eroslearendako erakargarria eta eroso izan dadin. Horrez gain, ezinbestekoa da produktua-**

**ren eta eroslearen artean komunikazioa egotea, zerbait komunikatuz gero emaitza hobeak lortuko dira eta. Horretaz ohartuta, apurka-apurka enpresariak diseinua eta komunikazioa zaintzen hasi dira gai horretan adituak diren enpresen aholkularitzapean.**

**G**ure eskualdean orain dela hamar urte hasi ziren jaiotzen diseinuan eta komunikazioan aholkularitza eskaintzen duten enpresak. Hamar urte beranduago, enpresa horiek finkatuta daudela esan daiteke. Inguruan laupabost enpresa dira lan horretan

dihardutenak, eta horietako bi Diara eta AZK Taldea dira: lehenak diseinu industrialean lan egiten du eta bigarrenak komunikazioan.

## DIARAK HAMAR URTE

Ospakizun urtea du Diarak. Eskola Politeknikoaren babesean jaio zen kooperati-

AZK Taldea



bak hamar urte bete ditu aurretan. Arrasaten eman zituen lehen pausua Diarak, baina proiektuak gorputza hartu zuenean Aretxabaletan bulegoa erosi eta hantxe kokatu zen.

Hamar urte pasatu direnean, merkatuan gero eta toki gehiago dutela ikusten dute Diarako bazkideek. Hasiera, hala ere, ez zen erraza izan garai hartan diseinu industrialak kontu berria zen eta. Informazioa ere gutxi zegoen, eta horregatik, bultzatzaileek Italiara joan behar izan zuten diseinu industrialari buruzko masterra egitera.

Gauregun 15 lagunek egiten dute lan Diaran. Gehienak injineru teknikoak dira, baina badira arkitekto bat eta diseinuan adituak diren pare bat lagun.

**ZER DA DISEINU INDUSTRIALA?**

“Produktuaren estetika eta forma lantzen dugu -dio Elisabeth Urrutiak, Diarako zuzendariak- horrek, hala ere, ez du esan nahi produktuaren itxura zaintzen dugunik bakarrik. Produktuaren erabilgarritasun eta erosotasuna ere bilatzen dugu. Diarak, adibidez, lan asko egiten du elektresnen alorrean. Horrelako tresna baten diseinu industrialak zaintzea eskatzen digutenean, alde batetik tresnari momentuko diseinuarekin bat datorren itxura ematen diogu, eta bestetik elektragailuaren botoiak, atek... erabiltzailearendako erosoak egiten ahalgintzen gara”.

Bi baldintza horiek beteaz, Fagorrendako garbigailu bat diseinatu eta estatuan ematen den “Delta de Plata” saria jaso zuen iaz Diarak. “Oso garrantzitsua izan da hain sari prestigiotsua irabaztea. Gainera, lehenengo aldia izan da diseinu industrialean lan egiten duen euskal enpresa batek sari hori jaso duela”.

Baina Diarak beste arlo



Garbigailu honen diseinuatik “Delta de Plata” saria jaso zuen Diarak.

batzuetan ere egiten du lan: etxerako altzairuak, josteko makinak, bizikletak nahiz itxulapikoak diseinatu ditu eta baita produktu berriak asmatu ere. “Batzuetan enpresari etorri eta produktu berri bat nahi duela esaten digu. Hori gertatu zen, adibidez, Gernikako enpresa batekin. Enpresa horrek plastikozko gauzak egiten zituen baina ez zuen produktu propiorik. Telebisitarako urrun managiluendako babestaileak azkenaldian asko saltzen direla eta, horrelako bat diseinatu genion. Babestaile berezia asmatu genuen, managailu guztiendako balio duena eta ohikoak baino gehiago irauten duena. Produktu hori 94tik dago kalean eta ia 600.000 babestaile saldu dira. Benetako arrakasta izan da”.

Eta gauza zailagoak egitea ere tokatu zaie. Irizar enpresari saria ekarri dion “Century” autobusaren diseinua Diarak egin zuen, eta Hong-Kongeko metroko trenaren bagoie ere kooperatiba horrek eman zien itxura. Gutxi barru, berriz, Telefoni-

**Corre, ¡que vuelan!**

¿Base terrestre? No alcanzo las llaves de la nave."

**— Llaves de aluminio JMA —**  
Tan resistentes y ligeras como los materiales aeronáuticos.

**JMA**

AZK Taldeak Arrasateko enpresa batendako egindako kartela.

cak telefono berriak jarriko dituzkalean, horiek ere Diarak diseinatutakoak. Eta beste lan batzuetan ere badabilta, “baina badaezpada bukatuta egon arte ezin ditugu ezagutzera eman”

esaten du Elisabeth Urrutiak.

**DISEINUA ETA KALITATEA**

Produktua kalitate onekoa izatea garrantzitsua dela aitortzen



Diara Design



Diarak diseinatutako telebistarako urrun managailuendako babestaile honek oso harrera ona izan du. 94az geroztik ia 600.000 babestaile saldu dira.

tzen duen arren, Diarako zuzendariaren ustez diseinuari ez zaio bizkarrik eman behar. "Jendeak uste du zerbait erosten duenean produktu hori hobea delako erosten duela baina hori ez da guztiz egia. Produktuarekin identifikatzen garelako eta begietara erakargarri zaigulako aukeratzen dugu bata edo bestea. Horregatik, biak maila berean jarriko nituzke".

Saldu nahi denaren itxurak duen garrantziarekin ohar-tuta, gero eta gehiago dira

diseinu industrialari zaintzen duten enpresak. "Urtero produktuari itxura berria ematen dioten enpresendako egiten dugu lan batez ere, eta MCCn horrelako enpresa asko dagoenez, lan eskarien %60a kooperatibetatik datorkigu. Gai nontzean lan gehiena hementxo enpresendako egiten dugu". Datorren hilean, hala ere, bere burua atzerrian ezagutzera emateko aukera izango du Diarak, diseinu industrialari buruz Brasilen egingo den "Expotecnia 96" erakusketan parte hartuko du eta. Diara izango da diseinu arloan Euskal Herria ordezkatu duen enpresa bakarra.

### AZK TALDEA

Orain dela bederatzita urte jaio zen AZK Taldea komunikazioaren alorrean enpresei aholkularitza emateko. Enpresa hiru lagunek jarri zuten

abian, soziologo batek eta arte ederretako bi lizentziatuk, baina enpresa zabalkunde hartuz joan zen heinean lan taldea ere handituz joan zen. Gaur egun zortzi langilek osatzen dute taldea; aurrez aipatutako hirurek gehi bi ekonomistek, bi publizistek eta arte ederretako beste batek. Hala ere, AZK Taldeak jende gehiagori ere ematen dio lana. "Sorkuntza lana enpresan egiten dugu baina maketazioa, ikusentzutekoak... enpresaz kanpoko kolaboratzaileek egiten dute".

### ZER KOMUNIKATU?

Aipatu dugu diseinuak duen garrantzia, eta maila batean AZK Taldekoak horretaz ere arduratzen dira produktuak biltzeko zorroak diseinatu eta. Baina produktu bat itxura baino zerbait gehiago da. Produktua saltzeko ezinbestekoak dira enpresak nahiz produktuak irudi egokia izatea eta irudi hori adieraztea. Komunikatzea aldizkarian edo telebistan iragarki bat egitea izan daiteke baina ez hori bakarrik. J.M. Armentiak, taldeko kontsultoreak dioen bezala, askoz gehiago ere bada. "Gertatu izan zaigu enpresa batera joan eta komunikazioari buruz ber-

betan hastean zera entzutea: guk ez dugu publizitaterik egiten. Hitzegiten jarraitu eta komunikazioa egiten dutela konturatzen dira. Zerbait saltzeko asmoz banatzailearen aurrera joaten zarenetik azken faktura egiten duzun arte irudi bat eskaintzen ari zara, eta hori komunikatzea da. Enpresa bateko komunikazioaz arduratzen hasten garenean, enpresa horrek zer nahi duen ikusten dugu lehenengo eta horren arabera zer komunikazio moeta komeni zaion finkatzen dugu. Biltegian pilatuta duen produktua merkaturatu nahi duela, orduan hori nola egin pentsatzen dugu. Adibidez, produktua saltzeko beste zerbait oparitzea proposa diezaiokegu, edo toki jakin batzuetan iragarkiak jartzea, edo Internet-eko Web orriari sartzea (enpresak dituen produktuen katalogoa sartzen da Web orriari, Internet-a erabiltzen dutenek horien berri izan dezaten)".

### INDARRA HARTUZ

J.M. Armentiaeren ustez, komunikazioaren gaia indarra hartuz doa baina enpresariari kosta egin zaio horren garrantziaz ohartzea. "Enpresariak beste ardura batzuk ere baditu baina ez da nahikoa produktu on bat egiteko gai izatea. Gaur egun produktuak gutxi desberdintzen dira bata bestearengandik eta nobedaderen bat irteten denean kompetentziakoek azkar kopiatzen dute. Horregatik, bezeroari egokiro kasu egitea eta irudi onarekin aurkeztea ezinbestekoak dira".

AZK Taldeak gehienbat inguruko enpresendako egiten du lan. Era horretan, Mondragon Korporazioko kooperatiba batzuk daude bezeroen artean, baina baita beste hainbat enpresa eta erakunde ere. Merkatuan gehiago hedatzeko, gainera, iaz Bilbon zabaldu zuten bulegoa.



Aurpegi berri gutxirekin baina ilusio handiz hasi dira aurrendenboraldia prestatzen.

## Eskubaloi taldea ilusioz beteta hasi da aurrendenboraldia prestatzen

Arrasate eskubaloi taldean hainbat aldaketa eman da azken hilabeteotan. Kirol alorraren lana eta zuzendaritzarena banatu guran eta bi aldeak informatuta izateko asmoz, taldeko arduradunek koordinatzaile orokor bat izendatu dute. Jesus Mari Herrero entrenatzaile postua utzi eta lan berri horretan hasiko da aurtengo denboraldian. Bestalde Rosa Lasagabaster heziketa fisikoan lizentziatutako gaztea talde guztietako prestakuntza fisikoaz arduratu eta era berean lehen taldeko bigarren entrenatzaile izango da. Une honetan lau talde daude eskubaloian. Lehen taldeko gidaritza Ibon Alzelai 26 urteko legazpiarrak eramango du. Lehen territorialeko entrenatzaile berria Bernardo Balerdi da. Jubenilena Faustino Gorostiza eta kadeteek bi entrenatzaile izango dituzte: Miguel Salterain eta Jose Ramon Valle. Zuzendaritzan

berriz, ez dago aldaketarik. Azken urteotan bezala Mariano Arrietak beteko du lehendakari lana, lehendakariordea Txomin Remedios, idazkaria Jesus Mari Herro, diruzaina Mikel Balenciaga eta bokalak Juan Arrieta, Kepa Uranga eta Jose Antonio Aranburuzabala dira.

Lehen taldeari dagokionez, iaztik hona hiru baja eman dira. Jokin Esnal zen-

tralak taldea utzi du lan arazoak direla eta. Horrez gain, Jose Antonio Moreno eta Saul Gonzalez atezainak ere ez dira taldean izango. Hiru baja egon direnez, taldeko arduradunak atezain baten bila dabilta eta dagoeneko esan daiteke Iñaki Iurtia 20 urteko legazpiarra Arrasateko taldeko jokalaria izango dela 96-97 denboraldian. Lehen mailako taldeak urriaren 13an hasiko du denboraldia. Ordurako dena gertu eta jokalaria sasoian egon daitezen hasi dira aurrendenboraldia prestatzen. Egunezko arratsaldeko 7etatik 9etara entrenatzen dute Iturripeko kiroldegian.

Aurten eskubaloi taldeak besteak beste bi helburu nagusi izango ditu: batetik lehen mailan jarraitzea eta bestetik harrobia sendotzeko eskubaloi eskola sortzea. Azken helburua betetzeko Jesus Mari Herrero eta Rosa Lasagabaster dabilta lanean.

**Eskubaloi taldean hainbat aldaketa eman da aurten. Helburuak ere zehaztu dituzte eta horien artean garrantzitsuenetarikoa eskubaloi eskola sortzea da.**

### Atxabalpen lehen partidua domekan


Preferente mailako Mondrak hutsnako berdinketa lortu zuen Hondarribia taldearen kontra denboraldiko lehen erronkan. Arrasateko taldeak golik lortu ez arren, aukera gehiago sortu zituen Ondartzako futbol zelaian. Hala ere partidua ez zen ona izan. Datorren domekan Zestoa taldearen bisita jasoko du Mondrak Atxabalpen, arratsaldeko 5etan hasiko den norgehiagokan. Jesus Mari Barrutia-bengoak zuzentzen duen taldea garaipenaren bila zelairatuko da. Jokalariek jarraitzaileen aurrean jokatu duten lehen neurketan dena eman beharko dute. Izan ere ez da ahaztu behar 3. mailatik jeitsi berria den taldea dela eta hori igerri egin behar da aurtengo denboraldian. Gainera Zestoak sekula ez du talde sendorik izan eta sekula ez da aurreneko postuetan ibili. Beraz itxuraz denboraldiko lehen garaipena lortzeko neurketa egokia izan daiteke. Bestalde, Txu entrenatzaileak hainbat baja izango ditu: Igor Tolak, Beñat Apraizek eta Agustin Callejak ezingo dute jokatu lesionatuta daudelako. Gainontzekoak gertu izango dira partidua borobila burutzeko.

### Zaldibarkoen bilera

Aurten ere Zaldibar txapelketan parte hartu nahi duten jokalariek bilera izango dute irailaren 16an, astelehena, arratsaldeko 7etan Monterronen. Bilera garrantzitsua izango da, antolatzaileek esan dutenez 96-97 denboraldiko hainbat arau aldatuko dira eta jakinaren gainean egon daitezen jokalarien presentzia nahi eta nahiezkoa da.

# Saskibaloikoek bi helburu izango dituzte aurtengo denboraldian

Arrasateko saskibaloitaldeak bi helburu zehatz jarri ditu 96-97 denboraldirako: bata EBA ligan sendotzea eta bestea azken urteotan egin duten 6 milioiko defizita estaltzea. Azken asmoa lortzeko gutxitu egin behar izan dute hainbat gastu eta horrez gain dirua aurkitzeko beste bide batzuk jorratzen hasi. Iaztik hona erabat aldatu da EBA ligako taldea. Jose Angel Samaniego entrenatzailearen lekua German Monje bizkaitarrak beteko du, bigarren entrenatzailea Iñaki Gonzalez arrasatearra izango da. Horrez gain lau baja eman dira: Jorge Garbajosa, Iñaki Gomez, Pedro Rodriguez eta Joserra Garai. Iazko bost jokalarik jarraitzen dute: Jorge Fernandez, Andres Gutierrez, Iñaki Arrue, Iagoba Gamarra eta Jose Luis Ortun. Beheko taldetik Roberto Gutierrez eta



German Monje entrenatzaile berria

Ander Mallabiabarrena igo dira, iaz Basconiako bigarren mailako taldean jokatuak. Aurrendenboraldian EBA ligako taldearekin harrobiko bi jokalaritako dira: Iraitz Elorza eta Asier Dublan gaztea. Juan Pedro Cazorlari

dagokionez hasieran etorriko zela zirudien arren, jokalaria LEB ligan jokatu nahi du eta itxura denez talde bateko eskaintza jasoi du, beraz zaila ikusten da bere etorrera. Basconiatik Sergio Galan jokalaria gaztea etor daiteke.


Sergio pibota da eta 2,06 metro ditu. Une honetan Urbina Maltzagako ordezkariak beste hiru jokalarirekin dauka harremanetan: Eneko Izarra, Santi Campos eta Jon Ibarrola. Ibarrola hegalekoa da eta iaz Señorío de Zugasti taldean jokatu zuen. Izkarak base postuan jokatu du eta Cordoba taldeko jokalaria izan da azken urtean. Bestalde Alvaro Coca Donostiako jokalaria arazo dago. Alvarok Injinerutzako proiektua Donostia aldeko enpresa baten egin behar duenez behar bada ezin izango du Arrasaten jokatu. Beraz, Cocak ezezkoa esanez gero, Eneko etorriko litzateke base lana betetzeko. Era berean esan behar da taldeko arduradunak jokalaria atzerritarra ekartzeko asmoz daudela. Atzerritar gaztea, proiektzio onekoa eta merkearen bila dabilta.

## Txirrindulariak denboraldiko azken txanpan

ATE taldeko txirrindulariak denboraldiko azken txanpan dauden arren, asteburu honetan ere beste bi lasterketa izango dituzte. Jon Aperribai, Jon Azkorra, Oscar Askasibar, Xabier Lizaso, Aitor Larrea, J. A. San Migel eta Roberto Cuartero txirrindulariek Goierriko biran hartuko dute parte ostiraletik domekara arte. Hiru etapak Urretxun hasiko dira eta bertan bukatu. Ostiralean arratsaldeko 4etan hasiko da lasterketa

eta baita larunbatean ere. Domekan berriz, goizeko 10etan elkartuko dira azken erronkari aurre egiteko. Goierriko biran 23 urte azpiko txirrindulari afizionatuak izango dira.

Bira honetan parte hartuko ez duten txirrindulariek Altsasuko sarian izango dute zita domekan goizeko 10etan. Lasterketa elite eta 23 urte azpiko txirrindularientzat dago antolatuta eta ibilbideari dagokionez 115 kilometro ditu.




## Atletismo frogak Iturripen

Iturripenko pistak atleta gazteen topaleku bihurtuko dira zapatuan goizeko 11etatik 12.30etara. 7 urtetik 14 urtera arteko neska mutilek froga desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute. 200, 400, 600 eta 800 metroko lasterketak egongo dira ikusgai. Txapelketa honetako partaide izateko frogak hasi baino hamabost minutu lehenago eman beharko da izena froga-gunean. Parte hartzaile guztiek sariak izango dituzte eta lehenengo hiru rentzat dominak egongo dira. Atleta nagusiagoek berriz Bergarako herri krosean hartuko dute parte zapatuan, arratsaldeko 5etatik aurrera.

Ez gara eroak...  
badakigu zer nahi dugun...



# LARUNBAT ARRATSALDETAN...




**11-12 urte bitartekoentzat**  
B.H. 5-6. maila

**12-13 urte bitartekoentzat**  
D.B.H. 1-2. maila

# EZ NAGO INORNTZATI!

## ORDENAGAILUA

Ordenagailuen lagun  
eringo gara, eta berak  
erakutsiko digu lagunei  
idatzeko postalak egiten,  
logelan posterrak,  
urtebetzerrako  
gonbidapen txarteltxoak eta beste makinatxo  
bat truko polit egiten.



## BRIKOLAIA

Baietz egin Arrasateko  
parke baterako zubi  
haundi bat bertan  
jolaskeo!



## ESPEOLOGIA ETA

Mendira joan, kobazuloak  
ezagutuko ditugu eta orientatzen  
ikasiko dugu.



## ARGAZKILARITZA

Argazkilaritza polita da, guk  
aterako ditugu argazkiak eta  
errebeldu ere.



## SEXUALITATEA

Jakin nahi dugun!  
Ikusi nahi dugun!  
Esan nahi dugun!



## TELEBISTA

Kamara bat esku artean  
hartuta, ba al dakizu zer den  
telebista programa bat egitea?



Pablo Uranga, 4  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 54 46

## ● Luis Etxeberriarteun eta Angel Larrañaga

# EAren lehen hamar urteak


**Hamar urte bete zituen EAk joan den astean. Hori dela eta, Arrasateko EAren lehendakariarekin, Luis Etxeberriarteunekin berba egiteko hitzemanda geunden. Azkenean Angel Larrañagarekin azaldu zen eta biak elkarrizketatu genituen.**

**- EAren zatiketaren ondorioz sortutako alderdia da EA, nola gogoratzen dituzue une haiek?**

- A.L.: Une estuak izan ziren. Arazoa ideologikoa zen, Lurralde Historikoen Legearen aurrean bi sentsibilitate sortu ziren, batzuk proiektu baten alde jarri ziren eta besteak bestearen alde. Proiektu bat liberala zen, apur bat Euskal Herrian zentratutakoa, Jaurilaritzak diputazioek baino indar handiagoa edukitzearen aldekoa; bestea, berriz, alderantziz, diputazioei botere handiagoa ematearen alde. Proiektu bi horiek bi pertsonengan isladatu ziren, Garaikoetxea eta Arzalluz. Guk herria oso osorik ikusten genuen; PNVn geratu zirenek, berriz, sakabanatuta.

**- Arrasaten egon zen istilu berezirik?**

- A.L.: Orduko PNVko juntako gehienok EAra joan ginen, eta afiliatu batzuk PNVn geratu ziren. Handiena Batzokiaren inguruko jabetza izan zen, afiliatu gehienok alde arren, izena




Luis Etxeberriarteun.

zeukatenak gelditu ziren Batzokiarekin eta. Herri barruan arazoetan hasi barik, orduan hasi ginen Elkartetxearen proiektuarekin.

**- EAren sorreran ez zioten etorkizun handirik iragartzen. Hamar urte pasa ondoren, zein balorazio egin daiteke?**

- L.E.: Denborak erakusten du hor gaudela eta proiektua sendoa dela: 15.000 afiliatu dauzkagu gutxi gorabehera, eta hori hor dago. Agintzen duguna bete egiten dugu, eta hori da gure arrazoiak. Kanpainetan eta programetan esaten duguna betetzera joaten gara; ez beste batzuk bezala.

**- Badago diferentziarik EAko militante bat eta PNVko**



Angel Larrañaga.

**beste baten artean?**

- A.L.: Edo denak edo batez, herriko jendea da EAN dagoena, baita PNVn eta HBn ere... denetarik dago denean. Diferentziak pentsamenduan daude, batera edo besteetara doan jendeak gutxi gorabehera badaki zer nolako Euskal Herria nahi duen gerorako, hori da diferentzia. PNVkoek lasai egongo dira era honetan, Madrilekin konponduz eta autonomia nahikoa dela esanez. Geure jendeak pentsatuko du hau ez dela nahikoa, independentzia behar dugula marko demokratiko batean. HBkoak, berriz, independentzia eta sozialismoa.

**- EA Arrasaten osasuntsu dago?**

- L.E.: 140 afiliatu dauzkagu; gazteak, berriz, afiliatuta 20ren bat, eta inguruan beste asko gehiago.

**- Eta zein izaten da alderdikide baten lana?**

- L.E.: Lan handiena kanpaina sasoiaren izaten da. Gai nontzean Udaletxeko gaietara egiten zaie jarraipena, zinegotzietara eskaini beharreko laguntza, alderdiarekin eduki beharreko harremanak... astean behin biltzen gara juntako hamar kideok horri guztiari buruz berba egin eta denon artean erabakiak hartzeko.

**- Hamar urte eta gero... zer?**

- A.L.: Gauzak behar den moduan eginez gero, serio, aurrera egingo du.

- L.E.: Helburuetara garatzen bidetik goaz, eta Euskal Herriko gizon eta emakumeak ez dira inozoak, argi ikusiko dute nor doan zuzen eta nor ez.

**● “Lan handiena kanpaina sasoiaren izaten da. Gainontzean Udaletxeko gaietara jarraipena egiten zaie, zinegotzietara lagundu...”**

*Imanol Lasa*

# Euskal Herriko mendiak urtaroz urtaro diapositibetan


Irailaren 16an Imanol Lasa lazkaotarrak "Urtaroak mendian" izeneko diaporama erakutsiko du Aita Menni ospitalean arratsaldeko 5etan. 250 diapositibetan, Euskal Herriko mendiek urtaro bakoitzean jazten dituzten koloreak eta berauetan egin daitezkeen kirolak ikusi ahal izango ditu Aita Mennira hurbiltzen denak. Imanol Lasa bera diaporamaren gainean mintzatu da.

— Zeri buruzko diaporama da Aita Mennin erakutsiko duzuna?

— Lau urtaroetan mendian eginiko bidaia da diaporama hau. Urte askotan bildutako argazkiak bildu eta gidoi bat egin dut, beraz, urtean zehar mendiek izaten duten koloreak etabar ikusi daiteke diaporaman. Bestalde, urtaro bakoitzean kirol bati buruzko diapositibak sartu ditut: udaberrian eskalada, udaran Guarako erreka baten jeitsiera, udazkenean parapentea eta neguan mendiko eskia.

— Zein menditan ateratako argazkiak dira?

— Euskal Herriko mendietan ateratakoak dira gehienak, Piriniotan batez ere. Proiekzioaren hasieran Aitzgorri, Aralar eta inguruko mendien argazkiak ikusten dira eta ondoren Piriniotakoak.



— Noiztik daukazu argazkiak egiteko ohitura?

— Aspaldidanik, mendizalea naiz eta gehienak mendian ateratzen ditut.

— Horrenbeste menditan ibili ondoren, zein iruditzen zaitu inguruko parajerik ederrena?

— Zaila da esatea. Nire ustez mendi guztiek daukate bere xarma baina Pirinioak aipatuko nituzke. Oraindik basati samarrak dira eta argazki politak egiteko nahiz beste gauza batzuetarako aukera ematen dute.

— Mendira zoazenean beti eramaten duzu argazki kama-

ra gainean?

— Gehienetan bai. Motxila egin eta gero bi aldiz pentsatzen dut argazki kamara eraman ala ez, izan ere asko okupatzen du baina azkenean beti eramaten dut.

— Beste diaporamarik egin duzu?

— Bai. Orain dela 4 urte Nepaleko Makalu II mendira joan ginen eta han egindako argazkiekin beste diaporama bat egin nuen, lehena. Batez ere hurbilketa martxako argazkiak atera nituen, baita hango bizimoduari buruzkoak ere.

— Nepaleko diaporamak

ala urtaroenak izan du arrakasta handiagoa?

— Jendeari azkeneko hau gustatu zaio gehiago. Espedizioei buruzko diaporamak oso ikusita daudela ematen du, jendea saturatuta ei dago gai horretako diaporamekin, urtaroei buruzkoak harrera hobea duela iruditzen zait. Euren-gandik hurbilago dauden gaietara buruzko diaporamak ikustea gehiago gustatzen zaio jendeari. Hori esan didate behintzat.

— Ze erreakzio espero duzu Aita Menniko gaixoen-gandik?

— Gustatuko zaiela uste dut, zergatik ez? Sekula ez dut han diaporamarik erakutsi eta beno, kuriositate pixka bat badut.

— Diaporama berririk egiteko asmorik baduzu?

— Gustatuko litzaidake, baina ez daukat ezer pentsatuta oraindik.

*“Espedizioei buruzko diaporamak oso ikusita daudela ematen du, jendea saturatuta ei dago gai horretako diaporamekin”*



# Goikobalu Abesbatzaren agenda bete betea datorren denboraldirako

Irailaren 10ean eta Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean hasi zituzten entsaioak Goikobaluko abeslariak. Ahotsak berotu eta hasi berri den denboraldirako prestatzeaz gain, taldeak badu asmo sorta zabala.

## Denboraldi berrirako asmoak

Urtero bezala, ikasturtean topera izango du agenda Goikobaluk. Hasteko, urriaren 12an, Udalaizteko gurutzearen 25. urteurrenaren ospakizunetan hartuko du parte taldeak. Juanito Arzamendik sortutako "Udalamendi" abestia eta beste zenbait kantatuko dute. Gabon aldera berriz, Santamasetako jai egitaraua eta ohiko gabon kontzertua San Frantzisko elizan. Rakel Murgiondok, Goikobaluko lehenakariak esaten duenez, aurreko urteetako Gabon Kontzertua baino luzeagoa eta biziagoa egitea gustatuko litzaieke.

Asmo asko ditu Goikobaluk, horien artean handi bat:



Rakel Murgiondo, Goikobaluko lehenakaria.

Arrasate Musikaleko orkestrarekin "El Caserio" zartzuela antzeztea. Asmo hori errealtate bihurtuko balitz, euskarazko bertsoian egingo luke te obra. Jadanik eskuartean dute obrako libretoa eta orain estreinu egun bat finkatu eta prestatzen hastea baino ez zaie falta.

Kantu lehiaketa baten parte hartzeko asmoa ere badu abesbatzak, Nafarroako Autol herriko lehiaketan. Orfeoia bere mendeurrenaren ospakizun ekintzei jarraipena emango dienez 97an Donostiako Orfeoiarekin ere konprometua du Goikobaluk.

Arrasatekin anaituta dago-

## "Zartzuela, Donostiako orfeoiarekin elkarlana, Ortonovora irteera... helburuetariko batzuk"

en Italiako Ortonovoko lagunekin elkar-truke bat egitea ere gustatuko litzaieke Goikobalukoei. Duela 3 urtetik duten asmoa da hau eta aurtengauzatu nahi dute. "kanpora ateratzeko gogoia daukagu. Azkenaldian beti geratu gara Arrasaten edo inguruan eta orain urrunago joatea nahi dugu, beste gauza batzuen artean, taldea bera promozionatzeko".

## Ahots falta Goikobalun

Abesbatzak duen arazo larrietariko bat ahots falta da. Rakel Murgiondok esaten duenez, aurtengauzatu 30 ahots baino ez dira euren parte-hartze finkoa ziurtatu dutenak. Horiez gain, kanpoan ikasten ari den 20 laguneko talde bat dago Goikobalun. Arazo honen aurrean abesbatzako zuzendariak deialdia zabaldu nahi die Goikobaluko partaide izan nahi duten guztiei. Dena den, emakumezkoen premia gizonetzkoena baino handiagoa da, bereziki sopranoena.

**YOSU HERMIK**  
VENTANAS AISLANTES

04

*Kalitate gorena leihuetan.*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



ESKORIATZAKO  
MAGISTERIO ESKOLA


Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:

**1996-97 ikasturterako aurreinskripzioepea zabalik dagoela.**

Espezialitateak:

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

Informazioa: IRAKASLE ESKOLA  
Tfnoa: 71 41 57  
ESKORIATZA



turriotz kalean ateratako argazkia dugu gaurkoan, sasoi hartan, 1960. urtean,

Resusta kalea bazen ere, bertan dagoen Iturriotz tabernaren aurre aurrean. Ez da arraroa argazkiko kuadrila toki horretan egotea, mendi alde-ra joaten ez ziren jai egunetan dotore dotore jantzi ondoren txikiteoan ibiltzeko ohitura handia zuten eta. Behar

bada horregatik "Lekape" izena jarri zioten kuadrila honi, "txikiteoan fuerte ibiltzen ginelako" Felipe Lasagaren hitzetan, protagonistetariko bat.

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara eta zutik, honako hauek dira:

**Ramon Zabaleta, Francisco Uribe**, beste **Uribe** bat (aurrekoaren anaia), **Baleriano Agirreurreta, Marcelino Sanz** eta **Lorentzo Luna**. Makurtuta eta ordena berean: **Felipe Lasaga, Jose Mari Iriarte, Kaxo**, eta **Nikolas Agirre**.



**BERGARA PIEL**

Larruzko arropak garestiak direlakoan zaude?  
Zatoz gure dendara eta harrituta geratuko zara!

Espaloia, 6 • BERGARA • Tfnoa: 76 20 70

Z E R N A H I A G O ?

## Fatima Robledo


### “Cualimen” janari dendakoa

- **Non egon zara oporretan?** Extremaduran, Valverde del Fresno herrian.
- **Gogorra egin zaizu lanerako buelta?** Ez.
- **Nora joango zara datorren urtean?** Leku berberera, urtero joaten naiz eta.
- **Frakak ala gonak?** Gonak.
- **Makilatzen zara?** Bai.
- **Zein liburu ari zara irakurtzen?** Ez dut irakurtzeko ohiturarik. Egunkaria ere ez dut irakurtzen.
- **Ze pelikula genero gustatzen zaizu?** Erromantikoak.
- **Negar egiten duzu pelikuletan?** Bai, asko.
- **Mentazko ala fresazko txikleak?** Mentazkoak.
- **Ze izen jarriko zenioke txakur bat?** Txakur bat daukat eta Tani deitzen da.
- **Zer egiten duzu denbora librean?** Ezer ere, ez daukat den-



borarik eta. Pelukeria ikastea gustatuko litzaidake.

- **Kafe hutsa ala ebakia?** Ebakia.
- **Edari bat?** Laranja-zoko Kas-a.
- **Inoiz apurtu duzu hankarik?** Ez.
- **Tabernak ala diskotekak?** Ez naiz gaue-tan irtetzen baina diskotekak nahiago ditut.
- **Zer falta zaio Arrasateri?** Diskoteka on bat.
- **Zer du soberan?** Dendak.
- **Zeri diozu beldurra?** Istripuei.
- **Hemen biziko ez bazina, non gustatuko litzazuke?** Marbellan.
- **Dutxan abesten duzu?** Ez.
- **Ze ordutan jeikitzen zara?** Batzutan 4.30etan bestela 7etan.
- **Kolore bat?** Beltza.
- **Abeslari bat?** Espainiar folklorikoak gustatzen zaizkit; Manolo Escobar, Isabel Pantoja eta horiek guztiak.



# Gida 97

Laugarren urtez, **ARKOK GIDA KOMERTZIALA** kaleratuko du eta bertan Leintz Bailarako telefono erabilienak eskura izan ditzazun.

GIDAn agertzeko negozio bat edukitzea nahikoa da.


Zeure datuak ondo agertzen ez badira, edo GIDARI buruz zerbait esateko baduzu deitu **77 08 15** telefonora.




**LASTER BISITATUKO ZAITUGU!**

“Munduko gauzarik zailenak hiru dira: sekretuak isilean mantentzea, irainak barkatzea eta denbora aprobetxatzea”

BENJAMIN FRANKLIN



Printzipio filosofikoa:  
Lehenbizi...



J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Sebas, Al-Andaluseko idazkaria. 8. Ukaezin. 10. Zeu. 11. (Ald.) Paseatzearen ekintzak. 12. Berezitasun nabarmenak dituena. 14. Octavio, idazle mexikarra. 15. Sexu maskulinoa duen animalia. 16. Bidaia luzeen zatietako bakoitza. 18. DOTEko kontsonanteak. 19. (Ald.) Argi gabe. 20. Bi eta bi.

**Bertikalak** 1. Zerbait luzatzearen ekintza. 2. Espazio bat bete. 3. Zamorako ibilgailuetan. 4. Antzu. 5. (Ald.) Zazpi egunetako epean. 6. Frantziako ibaia, Senaren adarra. 7. Esnea ebaki edo galdu. 9. Indar handirik gabeko kolpea. 13. Fruituen kanpoko geruza. 17. Gutxi gora behera 3,1416 balio du.

**Aries** Horrela jarraituz gero txakur jana jaten bukatuko duzu.

**Taurus** Itxura edukitzea ez da nahikoa. Hitzegiten ere jakin behar da.

**Gemini** Arazoak dituzu? Nork ez lituzke edukiko jarrera horrekin?

**Cancer** Udazkenarekin batera zure bihotza sutan jarriko da.

**Leo** Bistan da udan esperientzia oso interesgarriak izan dituzula.

**Virgo** Astebukaera honetan zerbait galduko duzu. Kontuz!

**Libra** Nork ulertu zuri? Batzutan zuri, bestetan beltz...

**Scorpio** Asko kostatzen zaizu erabakiak hartzea. Ez hainbeste pentsatu.

**Sagitaris** Jendeak asko estimatzen zaitu baina zu ez zara konturatzen.

**Capricorn** Xelebrekeriak egiten eta adarra jotzen maisua zara.

**Aquarius** Orrazkera aldatzen baduzu? Barkatu, ez nekien ilerik ez zenuela.

**Piscis** Miss lehiaketara aurkeztuz gero, zu zeu txapeldun!

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

**Doktoreak:**  
CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

## TELEBISTAREN TXOKOA



## Kukaratxa Motel-en berpiztea!

**I**rudi batek mila hitzek baino gehiago balio du, baina ez beti, gainera argazkia Kukaratxa Motel lehiaketaren itzuleraren spotaren irudi bat baino ez da eta. Aurreko etapan arrakasta handia izan zuen lehiaketa urrian bueltatuko da. Beti beza-

la, sorpresak ez dira faltako eta antzerkiaren mundutik behintzat bat baino gehiago izango da. Lehiaketan ez ohiko gauzak ikusiko ditugunez, lehiaketaren berpiztearen spota prestatu dute ohituz joateko... a ze nolako spota gainera!

## ARRASATE IRRATIA (FM 107,7)

Udako alde batera utzita, programazio osotuari ekingo dio Arrasate Irratiak aste honi. Era horretan, goizeroko tarte, eguneroko 9etako albistegiaren ondoren, Goizoro magazinak beteko du eta gaueko kolaboratzaileen programak hasiko dira:

- Astelehena, Caravanserai, musika programa.
- Asteartea, Kaxkikirratx.
- Asteazkena, KK2A.
- Osteguna, Txerrendantza, musika programa.
- Ostirala, KGB, informatika programa.

## SOLUZIOAK

**Horizontalak:** 1. Lozano, 8. Ukagaitz, 10. Zu, 11. (Ald.) Paseo, 12. Aparteko, 14. Paz, 15. Ar, 16. Etxa, 18. Dr, 19. (Ald.) Iru, 20. Lau.

**Bertikalak:** 1. Luzpen, 2. Oku-patu, 3. Za, 4. Agor, 5. (Ald.) Aste-an, 6. Oise, 7. Izportu, 9. Taka-da, 13. Azal, 17. Pl.

**Jeroglifikoak:** Biz!

## PROGRAMAZIOA



**13 Ostirala**  
20.00, 20.30 eta  
21.00etan. Berriak

**16 Astelehena**  
20.00, 20.30 eta  
21.00etan. Berriak

**17 Asteartea**  
20.00, 20.30 eta  
21.00etan. Berriak

**18 Asteazkena**  
20.00, 20.30 eta  
21.00etan. Berriak

**19 Osteguna**  
20.00, 20.30 eta  
21.00etan. Berriak

**20 Ostirala**  
20.00, 20.30 eta  
21.00etan. Berriak

## Urriak 6, Kilometroak Elgoibarren

Eta egun hori iritsi artean ARRASATE PRESSEK jokutxo bat proposatu nahi dizuete: **Kilometroak 96ko logotipoa izkutatu dugu** aldizkariaren orrialde batean. Aurki ezazu, eta kupoitxo bat adieraziz non dagoen. Asmatuz gero, Kilometroak 96k salmentan duen materiala zozketatuko dugu, trukean **2.000 pezetako balioa** duten agiriak emanez hain zuzen ere.

*Banoa, Banixe, Euskaraz, bai horixe!*



Izen-abizenak:.....

Telefonoa:.....

Zenbatgarren orrialdean dago logotipoa:.....

**ARRASATE PRESS**  
Azoka kalea, z/g  
20.00 ARRASATE

**Etxebizitzak**

- **Garagartzan dagoen Elizondo** taberna alokatzen da. Tfnoa: 79 15 99.
- **Pisu bila nabil eta pisu hori** osatzeko jendea ere behar dut. Aretxabaletan edo Eskoriatza. Abuztutik aurrera. Tfnoa: 10 73 93.
- **Pertsona bat behar dugu pisua osatzeko.** Itziar. Tfnoa: 79 11 85.
- **Baserría salgai Elgetatik gertu.** Tfnoa: 12 09 67 edo 12 71 10.
- **Pisua alokatzen zaie ikasle edo irakasleei.** Tfnoa: 79 61 95.
- **Pertsona bat behar dugu pisua osatzeko.** Tfnoa: 81 22 06. Saioa.
- **Iruñan pertsona bat behar da** pisua osatzeko. Tfnoak: 79 71 06 edo (948) 17 17 67. Leire.
- **Erdialdean garaje itxia alokatzen da** prezio onean. Tfnoa: 79 42 13.
- **Iruñan pisua osatzeko pertsona bat behar dugu.** Donibane auzoan. Tfnoa: 79 19 82. Gaueko 8etatik aurrera.
- **Donostiako Antiguoa auzoan pisua** osatzeko neska bat edo bi behar dira. Tfnoa: 79 55 42.
- **Garajea alokatu edo erosi** egingo nuke Munar edo Larrea inguruan. Tfnoa: 77 01 70.
- **Ikasleendako pisua alokagai** Bizkaia etorri-dean. Tfnoa: 77 14 24.
- **Donostian bi lagun behar dira** pisua osatzeko. Prezio ona. Amaran. Tfnoa: 79 86 00 Alaitz.
- **Garajea salgai Larringainen.** Tfnoa: 79 78 07.
- **Bi seme-alaba dituen familiak pisua** alokatu nahi du. Tfnoa: 79 42 05.

**Lana**

- **Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 77 05 22.
- **Taberna edo jatetxe baten lan egingo nuke** egun erdiz. Tfnoa: 79 23 58. Rosa.
- **Bi emakume prest** umeak zaindu, etxeak edo tabernak garbitu eta tabernetan lan egiteko prest. Tfnoa: 79 67 30. Toñi.
- **Emakume euskaldun batek asteburutan** eta jai egunetan pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 76 37 80. Gauez deitu.
- **Asteburuetan furgoneta duen** autonomo baten beharrea gaude. Ikuskizunekin zerikusia. Tfnoa: 79 67 25.
- **Igeltseroa, iturgina, elektrikaria** eta altzairi muntatzaileak behar ditugu. Tfnoa: 907-31 75 29. Dei egin goizeko 9.30etatik gaueko 8etara.
- **Andra gertu umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 28 80.
- **Almeneko ikasle batek** fisika eta kimikako klaseak emateko irakaslea behar du. (3.REM mailarako). Tfnoa: 77 01 91.
- **OHOko euskarazko klase partikularrak** hartuko nituzke neure etxean. Tfnoa: 79 27 48.
- **Emakumea gertu etxeetan lan egin** edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 27 48.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 48 12.
- **Ingeles eta frantseseko klase partikularrak** ematen ditut prezio onean. Tfnoa: 79 50 99.
- **OHO, REM eta BUPeko klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 50 99.
- **Neska edo emakumea behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 84 77.

• **Bi neska jator gertu arratsaldez lan egiteko.** Tfnoa: 79 52 37 edo 79 74 71.

• **OHOko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 94 04. Marijo.

• **OHOko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 06 39.

**Salerosketak**

- **Honda CBR 600 motoa salgai.** Bidaiatzeko gertu. Berri berria dago. Tfnoa: 77 09 85. Txomin.
- **Kawasaki ZZR 600 motoa salgai.** 2.900 km. ditu. ITVa 98 urtera arte pasatuta. Berri berria. Kandidatu opari. Tfnoa: 908-57 64 83.
- **Suzuki CSX 750 R' 91 motoa salgai.** Oso egoera onean. Yoshimura tubarroarekin. eta kubierta berrie-kin. Tfnoa: 77 13 91. Gari.
- **Citroën BX 19 GT autoa salgai.** OR-G. Prezioa: 150.000 pta. Tfnoak: 79 92 31 eta 79 23 26. 8etatik aurrera.
- **Estreinatuta gabeko Lur Hiztegi Enziklopedikoa** salgai. Tfnoa: 79 87 47.
- **Oso egoera onean dagoen Seat Ronda 1.2** salgai dago. 13 urte ditu. SS-S. Prezioa: 155.000 pta. Tfnoa: 79 09 52.
- **Kanping-karro denda salgai.** Tfnoa: 77 14 24.
- **Bulego altzariak salgai prezio onean.** Tfnoa: 79 65 25. Ana.
- **Abuztuaren 30ean urrezko bi belarritako galdu** nituen Herriko Plazan. Tfnoa: 79 27 38.
- **Hiru txakurkume oparitzeko ditut.** Ama artzai bel-giarra da. Tfnoa: 79 37 82.

**Denetarik**

**Aste Gazte**

**Unibertsitaterako autobusak**

• Donostiara eta Bilbora, egu-nero joan eta etortzeko autobus zerbitzua "Aixola" ikasleen elkar-teak antolatuta. Iazko ordutegia eta prezioa. Interesatuok irailan zehar Gazte Bulegotik pasatu behar zarete izena emateko.

**Lana**

• Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak ordezka-penetrarako zerrendak ireki ditu, Gorputz Hezkuntza eta Musika espezialitatean. Epea zabalik mugagabe.

• Tafallako, musika eskolak, hainbat lanpostu kaleratu ditu. Bibolin irakaslea, flauta irakas-lea, solfeo irakaslea, txistu irak-aslea...Epea: irailak 27.

**Ikasleentzat alojamenduak**

• Gasteizen, Donostian, Bil-bon nahiz Iruñean alojamendua lortu behar duzuenentzat. Informazio zerbitzuak: 1) Donostian, Garibai kalean, 20-behea, Ku-txaren bulegoan; 2) Bilbon, J.M. Olabarri kalean, z/g. Infojuveren bulegoan.

**Ikastaroak**

• Ikuska, ikusentzunezko Eskolak, bi ikastaro antolatu ditu. a) gidioak idaztea. b) zinearen estetika. Matrikula epea zabalik.

**Lehiaketak**

• Berrilane "Autoenplegu eta Mikroenpresen eraketaren" ideia lehiaketa kaleratu du. 24 urte bai-no gutxiago dutenei zuzenduta. Sari desberdinak. Epea: irailak 27.  
• "Enpresak eratzeko Gazte-entzat XI. Ideia lehiaketa" 18urte-tik 30 urtera artekoiei zuzenduta. Sariak: 1.100.000 pta. zuen ideia irabazle suertatzen bada eta sozietatea eratzten baduzue 2.500.000 pta. arterainoko saria. Epea: irailak 20.

**"Gizarte zentzudu-naren izenean, debeka ditzagun gerrak, gerrarako heziketatik hasita: debeka dezagun soldaduzka erabaki dezagun ejerzito guztiak legez kanpokoak direla"**

**L. OÑEDERRA (EGUNKARIAN)**

**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**


# ETXE MOBEL

## MUEBLES ALTZARIAK

### LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5  
(ESKATU Pabilioia,  
San Andres auzoa)  
Tfnoa. FAXA: 79 41 82  
ARRASATE



Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik!!

Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,  
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

### BENETAN HARRIGARRIA!!

# OPEL VECTRA BERRIA



## ARTEA MUGIMENDUAN



### SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile eksklusiboak, aldamentetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

### ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

### BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea eksklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erositasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 

 **TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.